



Sagardoa 2001

B e r e z i a

Makina bat tresna



Txotxerako garaia heldu da, urtero bezala. Bakailao tortila eta txuleta ederra lagun direla sagardoa fresko-fresko sartzen da eztarran behera. Gozamena. Soilik edarizale garenok ordea, ez dakigu zuhaitzetako sagarrak edari preziatu bilakatzeko zenbat denbora, diru eta buruhauste izaten den. Bidea luzea da. Sagardoa egiteko era funtsean ez da ia batere aldatu. Hala ere, erabilitako tresneria eta honen materiala garatzen joan da mendeetan zehar. Aldaketa bortitzenak, ordea, azken hamar urteotan eman dira. Egu-rrezko eta burdinazko tresnak altzairuzkoengatik ordezkatu dira. Makina automatikoek lekua hartu diote eskulanari. Garbitasuna, azkartasuna, kalitatea eta eskulana baztertzea izan dira garapen honen arrazoi nagusiak.

Ez dugu ahaztu behar gaur egun ondare historikotzat eta altxortzat ditugun tresna horiek garai bateko euskal ekonomiaren oinarri izan zirela. Sagardoak, beste edariekin bezalaxe, garapena behar du, mendeetan zehar mantendu dadin.

Testuak: Nerea Pikabea

• Sagar bilketa, neurketa, garbiketa	20
• Sagar jotzea	22
• Patsaren estutzea	26
• Botillaratzeta	30